

Erreterian, Ayuntamentuaren etxean, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga Mitxelena, Villasante, Lojendio, Lekuona, Irigaray, Arrue, Gorostiaga, Dassance, Eppherre, eta Lafitte jaun euskaltzaiñak. Aita Larrañaga apezpiku jauna ta ainbat urgazle geiago. Baita Gipuzkoako Gobernadorea, Gipuzkoako Diputaziño-ko buruzagiaren ordezkoa, Erreterriako alkatea ta parrokoa, eta beste asko geiago.

Alkate jaunak ondo etorria emon dau euskeraz. Ostean Oleaga jaunak Euskaltzaindiko arautegiak diñoana beteaz berba egin dau eta gero Etxaide jaunak Mitxelena jaunari emon deutso berba egiteko aldia Lojendio ta Arrue jaunen artean batzargelara ekarri dabenean. Amaitu dauenean Aita Villasante-k erantzun deutso. Etxaide jaunaren eskabidez Arrue jaunak berba batzuk esan ditu. Erriko alkate jaunak erriaren izenean erregalo bat egin deutso Mitxelena jaunari.

Eta batzarra amaitu da. Batzarraz kanpora ainbat jai ta zeremonia egon dira Mitxelena jaunaren omenez errian.